

2017KO ABUZTUKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira, gehitu 2 ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

-Begi hutsez:

- Hilaren 2an, 14:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 5an, 8an, 11an, 14an, 16an, 19an, 22an, 25an, 28an eta 31an izango dira.

-Hilaren 4ean, 06:00etan, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 9ean, 15ean, 20ean, 25an eta 31an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 7an, 21:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 15an, 22an eta 29an izango dira beste maximoak.

-Hilaren 16aren gauaren zehar, ilargiak Tauro konstelazioko izar ezberdinak ezkutatu dituzte, begi hutsez ikus daitezkenak.

- Prismatico edo Teleskopioarekin:

-Hilaren 1an, ilargia librazio minimoan aurkitzen denez latitudean, Platon kraterra ikusi ahal izango da eurien itsasotik iparrera.

-Hilaren 11an, ilargia librazio minimoan aurkitzen denez longitudean, Atlas eta Hercules kraterak ikus daitezke eguna argitu aurretik.

-Hilaren 15an, ilargia librazio maximoan aurkitzen denez latitudean, Pitagoras kraterra ikusi ahal izango da, 130 km-ko diametroa du eta 4.800 m-ko mendiez inguratuta aurkitzen da.

- Hilaren 16an, Aldebaran izarren ezkutatzea emango da ilbeheragatik. Egun argiz emango da, beraz teleskopioa beharrezkoa izango da ikusi ahal izateko. Donostian, ezkutatzea 6:26tan (TU) hasiko da, argituta dagoen aldetik ezkutatu da, eta itzalean dagoen aldetik berragertu da 7:43tan (TU).

-Hilaren 28an, ilargia librazio minimoan aurkitzen denez latitudean, Okren, Marinus eta Abel kraterak ikusi ahal izango dira, austral itsasotik gertu.

ILARGIA ABUZTUAN

01 librazio minimoa latitudean ($b = -6,8^\circ$).

02 08:14tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izarrekin, $9,6^\circ$ ra.

02 17:55tan, Apogeoetik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 405.025 Km. (aurreko perigeoan baino 43.789 km gehiago).

03 07:37tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, $3,4^\circ$ ra.

07 18:11etan, Ilbetea. Ilargiaren eklipse partziala, ezingo dugu ikusi latitude honetik

08 10:55tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

09 23:14etan, konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, $0,8^\circ$ ra.

11 librazio minimoa longitudean ($l = -5,6^\circ$).

13 08:01etan, konjuntzio geozentrikoan Uranorekin, $4,2^\circ$ ra.

15 01:15tan, Ilbehera.

15 librazio maximoa latitudean ($b = 6,8^\circ$).

15 14:19tan, konjuntzio geozentrikoan Pleyadeekin, $9,3^\circ$ ra.

16 07:04tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrekin, $0,4^\circ$ ra. Ezkutatzea ikusi.

18 13:18tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 366.121 km (aurreko apogeoan baino 38.904 km gutxiago).

19 04:05tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, $2,2^\circ$ ra.

21 10:34tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

21 18:00tan, eguzki eklipse zentral osoa, gure latitudeetik ezingo da ikusi. Bai ordea partzialki. 18:45tan (TU), eguzkia sartu baino lehenxeago, linboaren behealdeko zatien deformazioa somatuko dugu, zeini %10 faltako zaion. Ikusi nahi badugu zeruertz garbiak aurkitu behar ditugu mendebaldean, eta beharrezkoak, beti bezala, begiak babesteko tresneria egokia. Atmosferaren errefrakzioak behaketa zaildu egin dezake.

21 18:30etan, Ilberria.

25 15:31tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, $3,3^\circ$ ra.

28 librazio minimoa latitudean ($b = -6,8^\circ$).

29 08:13tan, Ilgora.

29 15:55tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izarrarekin, 9,7^{ra}.

30 11:25tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.308 Km. (aurreko perigeoan baino 38.187 km gehiago).

30 14:32etan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 3,5^{ra}.

PLANETAK ABUZTUAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (hilaren 5 arte ikusiko da, gauaren amaieran) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Behe konjuntzioan hilaren 26an, hilaren 6a aurretik bakarrik ikus daiteke. Eguzki sartu eta ordu betera ezkutatuko da hilaren 1an, baina eklipticaren inklinazioa kontutan izanda, eta lerro honen azpikaldetik igarotzen denez, laster ipiniko da mendebaldeko zerumugan. Disdira ahula du, prismatikoekin ikusteko ere ahulegia. Igoera zuzena 10h 31m, deklinazioa 7°. Hilabetea Leon hasiko du, Sextanterara pasa eta berriro Leora pasatzeko. Magnitudea nabarmen murriztuko da, 0,4tik 4ra.

Artizarra (Gauaren amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Ekialde ipar-ekialdeko zeruertzetik azalduko da eguzkia atera baino hiru ordu lehenago, 10^{ko} altuera lortuaz egunsentian. Gorunzko fase konkordunean aurkitzen da, %74 eta %83 artean. Igoera zuzena 6h eta 8h artean, deklinazioa 22° eta 19° bitarte. Hilabetea Geminisen hasiko du, Cancerren amaitzeko. Magnitudea -4,0an mantenduko da.

Marte (Hilabete honetan ezingo dugu ikusi) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Uztailak 27an eman zen eguzkiarekin konjuntzioarekiko gertutasunak, behaketarako aukerak ezabatzen ditu. Igoera zuzena 9h eta 10h artean, deklinazioa 18° eta 14° bitarte. Hilabetea Cancerren hasiko du, Leon amaitzeko. Magnitudea 1,8 eta 2,0 artean.

Jupiter (Gauaren hasieran ikus daiteke) orbita-abiadura 47.160 Km/h

eguzkia sartu eta bi ordu t'erdira ezkutatuko da hilaren 1an, eta ordu t'erdi beranduago 31an. Ikusi ahal izango den azken arratsaldeak dira, baina hilabete amaieran ere, begi hutsez aurkituko dugu mendebalde hego-mendebaldeko zeruertzetik 5^{ra}. Igoera zuzena 13h, deklinazioa -6° eta -7° artean. Hilabete guztia Virgon emango du. Magnitudea apur bat jetsiko zaio, -1,9,0tik -1,8ra.

Saturno (gauaren lehen zatian zehar ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Hegoalde hego-ekialdeko zeruertze gainean gauaren hasieran eguzkia jarri eta sei ordura ezkutatuko da hilaren 1an, bost ordu beranduago hilaren 31an. Saturno lurretik urrunduz doa, eta honek disdiran ere beharapena Dakar. Erretrogradazioa hilaren 25an amaitzen duenez, ekialderuntz abiatuko da berriro, Sagitarioko bidea hartuta. Igoera zuzena 17h, deklinazioa -22°. Hilabetea Ofiucon emango du. Magnitudea 0,3tik, 0,4ra pasako da.

Hilaren 07an 02:03tan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 15an 00:49tan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Hilaren 23an 00:25etan, Titan elongaziorik handienez planetatik mendebaldera.

Hilaren 30an 23:27tan, Titan elongaziorik handienez planetatik ekialdera.

Urano (gau amaieran ikusiko da) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Egonkor aurkitzen da hilaren 3an, eta urtarrilaren 2 arte iraungo duen erretrogradazio mogimendua hasiko du. Hilaren erdialdean hegoalde hego-ekialdeko zeruertze gainean aurkituko dugu gauaren amaieran. Igoera zuzena 1h 46m, deklinazioa +10°. Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea 5,8tik 5,7ra pasako da.

Neptuno (ia gau osoan ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Europatik ikusteko egoeran aurkitzen gara, gauaren erdialdean hegoaldeko zeruertzetik 35^{ra}. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -7°. Hilabete guztia Acuarion emango du. Magnitudea 7,8an mantenduko da.

ABUZTUKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, astearte, eguerdian, 2.457.967. egun juliotarra hasiko da.

- Egunak 14 ordu eta 32 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 13 ordu eta 14 minutukoa hilaren 31an.

- Hilaren 10an, 17:43tan, eguzkia itxuraz Leo konstelazioan sartuko da (138,28°).

- Hilaren 30an, lurrak 135 urte periodoko "109P swift tuttle" kometak utzitako ahuts lorratza zeharkatzen du, ondorioz Perseida izeneko izar iheskorren maximoa sortuaz.

- Hilaren 22an, astrologiaren arabera, eguzkia Virgo konstelazioan sartuko da (150°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.